

BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
568. zkia.
XIV. urtea
2006ko apirilaren 21a

Igor Horrillo, Euskal Herriko Botikarien Elkarteak saritua

# «Depresioaren jatorriaz oso gutxi dakigu oraindik»

[ LUZEZABAL ] FRANCOREN GARAIKO ESKOLA • [ KULTURA ] EUSKARAREN ERABILERA

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !



**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK
**2006-2007 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:**

**BATXILERGOAK [A eta D]**

**GIZARTE ZIENTZIAK**
**OSASUN ZIENTZIAK**
**ZIENTIFIKO-TEKNIKOA**

**Etengabeko Jarduna**



***Badugu ikasteko leku bat zuretzat!***

**www.lasalle.es/eibarlasalle**

**DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara - APIRILAREN 24tik MAIATZAREN 5era**



# ZOZOAK BELEARI...



## IBAN URIZAR

Mikele kuttuna!!

Badirudi gure azken gutun-gurutzatua izango dela. Batzuek esango dute; “hauek aspertu dira batak besteari tontakeriak botatzen”, hobe horrela. Gutxi batzuk pentsatuko dute; “beren grazia zeukaten”, baina beno, pasapalabra. Eta bakan batek esango du; “lastima, orain hasi behar nintzen kasu egiten zozo hauei eta...”.

Egia esan ez dut uste inor konturatuko denik batak besteari kezkak kontatzeari utzi diogula, batek daki zer pizten zuten BARRENeko irakurlearengan gure sasiletrau txorakeriek. Komuneko apalean beste komun-aldizkariekin batera edukitzen duten horiek, hobe lukete bitan pentsatu eta papel egokia aukeratu ipurdia garbitzeko, guk paper zati hori ahoa garbitzeko erabili izan dugun bezala.

Haserretu ere egin gara Mikele, eta horrek atzera bota ezean probokatu ere egiten ninduen, ongi pasatu dut horrekin, eta badakit askotan gaizki ulertuen gainetik irrifarre konplize bat mantendu dugula. Hori izan da beharbada nire eragilerik handiena, konplizidade inplizitoa.

P.D.: Inkestek diote gero eta gutxiago irakurtzen dela, baina inkestek ez diotena zera da; komunean askok irakurtzen dutela betebeharrak egiten. Portzentai altua ematen du horrek, komunean hezitu garelako sasiletrau guztiak.

Ongi izan Mikele.

> «Badirudi gure azken gutun gurutzatua izango dela»
>
> IBAN

> «Aio pelaio! Gure artekoa ez da ondo atera»
>
> MIKEL

## MIKEL KORNEJO

Aio pelaio!

Gure artekoa ez da ondo atera.

Eta, egia esan, ez dut pentsatzen inork gure hitzekin ipurdia garbitu duenik. Korapilotsuegia.

Esana dizut ez naizela sekula oso eskutitz-zalea izan, baina gustua hartzen hasita nengoen. Hala ere, modu batera edo bestera, eginbeharrekoek astun bihurtzeko arriskua dute. Eta, aipatu ez dudan arren, nik ere jasan izan dut epeen presioa zugatik, baina alferrik da indarrak kexuka xahutzea, gauzak datozen bezala onartu behar dira.

Esperientzia honetatik espero dudan bakarra inork animalien dokumentalak maite ez ditudanik pentsatzea da. Horrelako saioko animalia bati izena eta giza sentimenduak ematen dizkiogunean, otsoa maltzurra dela eta oreinkumea biktima, natura gure moralaren bitartez azaltzen dugu eta ez da zuzena.

Hitzen jolasa oso irristakorra da. Hitzak sentimenduak adierazteko erabiltzen ditugu, baina errealitatea gure pentsakeraren arabera mozorrotzeko ere, dena gure ideia murriztuen arabera moldatzeko, nahasteko... Azken finean, bizitza zure buruari eta besteei kontatzen diezuna da. Baina, batez ere, egiten duzuna. Eta hori ez luke beste inork niregatik azaldu behar.

Geroarte, Ibane!!

P.D.: Nik ere noizbait idatzi izan dut zer idatzi ez dakidanari buruz...

> “Benetan izugarria da jendeak gugandik ezkutuan esatea erabat egiazkoak diren gauzak”
>
> Oscar Wilde

## Udaltzainak eta isunak

Joan zen martxoaren 30ean, goizeko 7:00etan kotxera joan eta isun batekin egin nuen topo Santa Klara kalean. Nirea eta nirearen atzeko kotxea gaizki zeuden aparkaturik Aizkorri kalerako bide berrian. Hori adierazten du behintzat erdi jausten dagoen farola batean Udalak jarri duen seinaleak (ez al litzateke hobeto farola zuzentzea aparkatzea debekatzen duen seinalea bertan jarri baiño lehenago?). Kalearen beste aldera begiratu eta Santa Klara kalea zeharkatzen duen espaloi guztia kotxez beteta zegoen (25 bat kotxe bai, egunero bezala). Izan ere, aurreko gauean 22:00ak aldera kotxea espaloi gainean laga nahi izan nuen baina ez zegoen lekurik. Kotxe guzti hauek ez zuten isunik, ordea.

Hau ikusita galdera batzuk etorri zaizkit burura:

- Santa Klara kalean espaloi gainean aparkatzea ondo al dago? Hala baldin bada ez dut gehiago aparkatuko erdi jausitako farolako seinalearen azpian eta lekurik ez dagoenean espaloi gainean lagako dut kotxea zuzenean.

- Orain dela hilabete gutxi gora behera beste isun bat jarri zidaten, honela zioen: "por aparcar en zona peatonal". Santa Klara kaleko espaloia ez al da "zona peatonal"? Zein alde dago "zona peatonal" batzu eta besteen artean?

- Zergaitik jartzen dizkiete udaltzainek isunak kotxe batzuei eta ez beraien mutur parean gaizki aparkaturik dauden besteei? Zein kriterio erabiltzen dute? Mesedez, eskertuko nuke hau argitzea, ez baitut gogoko isunak ordaintzea.

- Zergaitik egiten dute udaltzainek ezikusiarena, Txankakua zubian edo Santa Klarako errotondan aparkatutako kotxeekin?? Bertan aparkatu al daiteke Jai Alai-en txikito bat hartzeko edo Zubi Ondo Soziedadean meriendatzeko?? Ez didazue esango kotxe hauek ikusten ez dituzutenik. Nik behintzat egunero ikusten zaituztet beraien ondotik pasatzen.

Azkenengo galdera batzuk ere etortzen zaizkit burura. Hauek Udalari zuzentzen dizkiot:

Azkenego hamar urteotan Santa Klarako biztanle eta kotxe kopurua bikoiztu edo hirukoiztu dela ikusirik, demaseko aparkaleku arazoa sortu zaigu gure auzoan. Hala ere Udalak ez ditu aparkaleku gehiago sortu. Hobe esanda, aparkalekuak gutxitu egin ditu!! Gabiola Taberna zenaren ondoko parkea peatonal bihurtu du, eta orain Aizkorri auzora doan bidean aparkatzea debekatu du. Laster Geminis bota eta etxe berriak egingo dituzte. Kotxe bat gehiago etxeko edo bi. Gainera orain dela urte gutxi Tanatorio berria ireki zuten. Horrelako negozio bat irekitzeko baimena ematerakoan ez al luke Udalak enpresa aparkalekuak eskaintzeko gai dela zihurtatu behar? Zein da Santa Klarako aparkaleku arazo hau konpontzeko Udalak duen plan estrategikoa? Udaltzainak goizeko 1:00etan kotxeei isunak jartzera bidaltzea? San Rokeko bizilagunekin batera Sigmako aparkamentu erraldoian aparkatu beharko al dugu kotxea?

Eskertuko nuke galdera hauen erantzuna jasotzea.

P.D. Bada ordua isunak euskaraz jartzeko!!

**U.L.Z 15.398.709-W**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo, Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.470 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



## TXALO

• San Bartolome Parrokia txalotu nahi dugu Aste Santuko ekintzengatik: "Urtero bezala, aurtengoan ere ederra izan da Aste Santua. Elizkizun asko eta prozesio ederrak izan ditugu. Fede handiz ospatu dugu Aste Santua. Jende mordoak hartu du parte ekintza hauetan eta denek txalo handi bat merezi dute".

• Udala eta Ttanttaka Teatroa txalotu nahi ditut "El florido pensil" antzerkiagatik: "Nekatzen ez duen obra da, ederra eta eskolako garaiak gogora ekartzen dituena. Barre mordoa egin genuen. Segi horrelako lanak ekartzen".

## KEXAK



• Herri guztia txakur kakaz beteta dago: "Lotsagarria da, gure herriko kale eta lorategi guztiak txakur kakaz beteta daude. Aspaldi atera zen txakur jabeei isuna jartzeko legea, baina ez dakit zenbateraino betetzen den. Argi dago txakurrek euren beharrak dituztela eta nonbaiten egin behar dituztela, baina jabeek jaso egin behar dituzte. Kale garbitzaileak ere ez dakit nora begira egoten diren. Udalak kontu handiz hartu beharko luke gai hau, kaleak benetan nazkagarri dude-eta".

• Herriko kale berriren batek Jaime Arrese izena merezi du: "Herrian auzo eta kale berri asko sortzen ari dira azkenaldi honetan, eta badirudi, aurrerantzean gehiago sortuko direla. Udalari Jaime Arreseren izena gogoratzeko eskatu nahi nioke. 25 urte bete dira tiroz hil zutela eta bai berak eta bere familiak honelako omenaldia merezi dutela uste dut".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
943 74 41 12

## komikia

Hil da gero... Carlos Carnicero



## 1956-2006

# Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

## AEK Euskaltegia (II)

AEK-ko arduradunen esanetan, hasierako eta gaurko ikasleen beharrak diferenteak dira: *"lehen bihotzak eraginda etortzen ziren asko; gaur egun, ordea, euskarak gizartean daukan pisuak eta presentziak bultzatuta datoz euskara ikastera"*. Hasieran euskal kontzientzia bazen motorra, gaur integrazioa, lana, seme-alabak eta ikasketak dira arrazoirik garrantzitsuenak.

Halere, eta ikasleekin segituz, AEK-ko arduradunek badute kezka bat 24 urteotan ikusitakoaren bueltan. Euskara ikasteko ahalegina jende askok egin du, baina, *"badirudi euskaldun zaharrok ez dugula gure burua euskaraz janzteko beharrik ikusten. Alfabetatzera oso jende gutxi etorri da"*.

Euskalduntzeko, alfabetatzeko eta tituluak prestatzeko eskolak emateaz gain, beste ekintza batzuek ere antolatzen dituzte. Helburuak bi izaten dira: bitarteko ekonomikoak lortzea eta herritarren artean euskararenganako kontzientzia sortzeko.

Ekintzarik garrantzitsuena, Euskal Herri osoa zeharkatzen duen KORRIKA da. Euskararen aldeko ekimen erraldoi honek, poza eta buruhausteak ematen dizkie AEK-koei. Izan ere, eguneroko jardunaz gain, *lasterketa* hori antolatzeak egundoko lana eskatzen die.

Amaitzeko, etorkizunerako erronkak edo helburuak azpimarratu dizkigute: *"Euskararen normalizazioa lortzeko lan handia egin beharko dugu. Eta lan horrek prestakuntza berezia eskatzen du. Esate baterako, mediku baten hizkuntz beharrek eta lantegi bateko gerentearen beharrek ez dute zerikusirik. Ondorioz, ahalegin berezia egin behar dugu irakasleok geure burua janzten. Ahalegin horrek, baina, izan behar du bere "ordaina" irakasleon lan baldintzetan administrazioaren aldetik"*.

Datozen bi asteetan Udal Euskaltegiaren gainean jardungo dizuegu.



## ERNESTO SANCHEZ

AEKko
IKASLE OHIA

***32 urteko elgoibartarra dugu Ernesto Sanchez. Duela lau urte hasi zen euskara ikasten AEK euskaltegian, eta aurten utzi egin du. Hitz egiteko maila hobea lortzea gustatuko litzaiokeela aitortu digu, baina orain atsedenalditxo bat behar omen du.***

**• Zergatik hasi zinen euskara ikasten?**
Eskolan beste ikasgai bat gehiago zen euskara. Denbora gutxi eskaintzen zitzaion, astean hiru ordu inguru, eta hori ez zen nahikoa niretzat. Gehiago jakitea nahi nuen eta euskaltegira joatea erabaki nuen.

**• Zenbat denbora egin duzu euskaltegian?**
Hiru urtez egon naiz. Lanetik atera eta egunero joaten nintzen euskaltegira arratsaldeko 19:00etatik 21:30era. 6. mailara iritsi nintzen eta gustura nago. Irakurri eta ulertu ondo egiten dut, baina hitz egitea kostatu egiten zait. Erderaz pentsatzen dut eta esaldiak euskaratzea zaila da. Itzuliko naiz berriro euskaltegira, baina orain atsedena behar dut.

**• Euskara ikastea zaila al da?**
Bai. Gogorra da. Denbora behar da. Lanetik atera eta euskaltegira joatea izugarri kostatzen da. Gogoa eta ilusioa ezinbestekoak dira euskara ikasteko.

**• Erabiltzen al duzu euskara zure bizimoduan?**
Oso gutxi. Nire inguruko jendeak ez daki euskaraz, ez daukat norekin praktikatu. Nire lankidea euskalduna da, baina nirekin erderaz hitz egitera ohituta dago eta ohitura hori aldatzea oso zaila da.

**• Nola ikusten duzu euskara gaur egun?**
Jendeak badaki euskaraz, baina ez du erabiltzen. Hemen bizitzeko ez da beharrezkoa euskaraz jakitea, erdaldunak eroso daude eta ez dute ematen euskaltegira joateko pausoa. Merezi du, benetan!



**ESKERTZA**

2006ko apirilaren 9an hil zen
***Pakita Arrida Iriondo**ren sendiak,*
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## [AKORDATZEN NAIZ]



### MANOLO UNZILLA

1924an jaioa

## «Gerria (3)»

Egun guztia ihesi, abioiekin, ametrallatzen, eta bildurrez... Elgoibartik urten genduala urtebete pasa zan. Setienbrian urten genduan, eta berriz aillegau zan. Ihesian denpora guztian. Tropak sartu ziranian danok karretera jeneralera urten genduan, aber kotxe on bat geratuko zan. Ez zaguan nun juanik, ez trenik, ez ezer. Bilbotik bai, baiña Bilbora ez. Halako baten, geratu zan bat; militarrak ziran. "Hiruntzako badago lekua", esan ziguen. Tia bat, anaixa eta ni sartu, eta ama-eta han geratu ziran. Portugaletera. Han zaken *Estado Mayorra*. Bat koronela zan. Eman ziguen koarto bat, eta afaltzera. Ikusi nabanian ogi zuri haura mahai gaiñian, zoratu bihar nitzan. Eta anaixari ere begixak urtetzen jakozen.

Hurrengo egunian, Elgoibarrera. Egunero-egunero bueltatzen zan jende errefugiaua Elgoibarrera eta estaziua egoten zan topera. Danak saludatzera. Zer rezibimiento! Etxera jun, eta amaman arraina (arrainduna zan) jan. Zer edar! Gero etorri ziran ogixan restrikziuak, baiña lehelengo bi egunetan ez zan arazorik egon, eta eskertu gendun.

Gurasuak 15 egunera aillegau ziran. 15 egun egon ziran bide izkiñan zain, bokadilluak janez. Logroñesera (futbol taldera) jun nitzanian (1944-45), oindiokan razionamentua zaguan hemen ogixana. Etxera amari ekartzen nion erregalorikan haundixena ogi zurixa etxera ekartzia zan. Gogorrak pasau genduzen orduan, baiña poliki-poliki normaldu giñan.



## [GURE BERBAK]

### *Kontrajarpena adierazteko lokailu batzuk*

Aurrekuan Barren lokaillua izan gendun hizpide; gaurkuan, berriz, kontrajarpena-edo adierazteko beste lokailu batzuk ekarriko dittugu hona, ez da-eta Barren bakarrik erabiltzen gure herrixan; batzuetan, erdarakadaren bat edo beste ikusten da *(en kanbio...)*:

*- Hau lotsatu egin dala, baiña bestela... - Lotsarik es dok <u>baiña</u> bihar.*

*- Elgoibarren ... Eta Azkoittixan, <u>berriz</u>, hemengo aldian behe aldeko euskeria gehixago nahasten juek, baiña oso zakar egitten juek.*

*- Ba, han egon giñan bigarren urtian. lez, <u>berriz</u>, hemen, Bidanian.*

*- Ba haura ogixa nik ez dakit zer zan. Harekin akordatzen naiz. <u>Oiñ</u>, zeren gustua zakan ez.*

*- Han beste hizkera bat dago. <u>Oiñ</u>, euskeria, hau baiño garbixagua izango dala haura?Bai.*

*- Oiñ danian etxiak egitten. Eta erosi egitten dittue, <u>hala ere</u>.*

*- Lan astunak dauaz basarrixan, baiña basarrixa oiñ, <u>hala ere</u>, gu gabizen moduan ganaurik be, erreza dok.*

*- Tanto bat ez zaban erregalatzen harek, eh? <u>En kanbio</u>, Gallastegi manimano eta, bete egitten zan, gizon haundixa ta, ...*

***Jesus Mari Makazaga***

**JOSE** *pinturak* **(Txema)**
**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.**
**Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

MARI TERE IRAEGI eta MIREN URKIA

# FRANCOREN GARAIKO ESKOLA

*Ttanttaka Teatroak "El Florido Pensil" antzezlana berreskuratu du, estrenatu zenetik 10 urte pasa ondoren. Herriz herri ari dira obra arrakastatsu hau antzezten, eta joan zen apirilaren 7an Elgoibarren izan genituen. Herriko Antzokia jendez gainezka zegoen. Eta seguru gaude bertara hurbildu zirenak ez zirela damutu: batzuk beraien eskola garaia gogoratu zuten eta beste askok Francoren garaian eskola nolakoa zen ezagutzeko aukera bikaina izan zuten. Gaurkoan 74 urteko bi emakumerekin berba egin dugu. Mari Tere Iraegik eta Miren Urkiak beraien eskola garaiko hamaika istorio kontatu dizkigute. Antzezlanarekin erabat identifikatuta sentitu direla aitortu digute.*

**Zenbat urterekin hasi zineten eskolan?**

Mari Tere.: 7 edo 8 urterekin hasi nintzen eskolan, baina ordurako, irakurtzen eta zenbakiak esaten ikasita neukan etxean. Amak erakutsi zizkidan gauza batzuk eskolan hasi aurretik. Eibarko Eskola Publikoan hasi nintzen, eta Elgoibarrera etorri ginenean ere, publiketan jarraitu nuen. 14 urtera arte ibili nintzen eskolan eta gero akademia batera joaten hasi nintzen.

Miren: Ni 6 urterekin hasi nintzen eskolan. Ermuko San Lorentzo auzoan zegoen eskolara joaten nintzen 9 urte egin arte. Elorriakoa naiz jaiotzez, Bizkaia eta Gipuzkoako mugan dagoen auzokoa, eta handik Ermura joaten ginen eskolara

**Zenbat ume egoten zineten klasean?**

M.: 40 ume inguru egongo ginen, adin guztietakoak batera egoten ginen. Orduan ez zengoen mailarik. Ume guztiontzako jarlekurik ere ez genuen izaten eta batzuk lurrean eserita egon behar izaten zuten. Pupitreetan jartzen ginen eta tontoenak atzean ipintzen zituzten. Niri beti atzean tokatzen zitzaidan! Kostatzen zitzaigunoi lagundu beharrean, atzera bidaltzen gintuzten trabarik ez egiteko.

M.T.: Ni ere beti atzean! Formala nintzen, baina tontorrona xamarra; atzean egotea tokatzen zitzaidan. Irakurtzen eta marrazten ondo moldatzen nintzen, baina gainotzean nahiko txarra nintzen. Elgoibarren bi maila zeuden eta ni ez naiz gogoratzen umeak lurrean jarrita egoten zirenik, guk denontzat izaten genuen lekua.

**Nolako irakasleak izan zenituzten?**

M.: Nire lehenengo irakaslea Señorita Maria Luisa izan zen. Elgoibartarra zen bera, oso gaiztoa. Oroitzapen txarra daukat, benetan. Emakume potola-potola bat zen, itxuraz ona ematen zuen, baina txarra zen. Berandu iristen baginen hormaren kontra jartzen gintuen eta edozein txorakeriagatik belarrondokoak eman, edo reglarekin hatzaparretan jotzen gintuen. Beste batzutan besoak irekita, belauniko liburu mordoa eustea egiten zigun. Eskolako lehenengo esperientzia oso txarra izan zen niretzat, oroitzapen benetan txarra daukat. Señorita Maria Luisaren zigor guztiak probatu nituen. Beste neska bati zorriak ikusi zizkion buruan eta hormaren kontra eman zion sekulako golpea zorriak hiltzeko eta etxera bidali zuen.

> **«Irakasgai guztiak abesten ikasten genituen»**
>
> MARI TERE

M.T.: Nik ez daukat irakasleen oroitzapen txarrik, irakasle onak tokatu zitzaizkidan. Hori bai, berandu iristen baginen, atea itxi egiten zuten eta ez ziguten sartzen uzten. Etxera joan eta amari esplikatzea izaten zen gogorrena. Lehenengo andereñoa la Señorita Dorotea izan zen, oso goxoa zen. Oso jakintsuak akaso, ez ziren izango, baina zekiten apurra erakusten ziguten. Marrazketa irakasle oso ona izan genuen Elgoibarren, Bernardo Ezenarro jauna, sekulako suertea izan dugu. Hari esker, elgoibartar askok primeran marrazten du.

**Zein teknika erabiltzen zuten ikasgaiak emateko?**

M.T..: dena abesten ikasten genuen: Biderketen tabla, Espainiako ibaiak eta beste gauza mordo bat. Dena buruz ikasten genuen. Munduko estatu eta hiriburuak ikasteko mapa handi bat jartzen ziguten aurrean eta buruz esan behar izaten genituen.

**Zein irakasgai izaten zenituzten?**

M.T.: Ostegunetan ebanjelioa izaten genuen; irakurtzea eta marraztea. Lehenengo liburuko pasarte bat irakurtzen genuen eta gero marraztu. Nirea marraztea zenez, arbelera ateratzen ninduten liburuan azaltzen zen irudiren bat marraztera. Astelehenetan zenbakiak; batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak. Erroketetara iritsi ginenan erabat galdu nintzen eta gaur egun oraindik ez dakit zertarako balio duten. Arratsaldetan esku lanak izaten genituen; josten irakasten ziguten.

**Euskaraz hitz egiteagatik belarrondokorik jaso al duzue inoiz?**

M.: Ezin zen euskaraz hitz bat ere esan, dena erderaz egiten genuen. Euskaraz etxean bakarrik egiten genuen, kalean eta klasean debekatuta zegoen. Francoren garaia zen, euskara ez zegoen onartuta. Atetik sartu orduko "Cara al sol" abestu behar izaten genuen besoa altxatuta, Espainiako banderaren azpian, eta besoa jaisten bagenuen abestia amaitu aurretik, belarrondokoa eta berriz abestera derrigortzen ginduten. Gela barruan Francoren irudiari begira erderazko beste abesti bat kantatzen genuen.

**Eta, ba al zenekiten erderaz?**

M.: Jakingo ez genuen ba! Gure etxe aurrean Mikeleteak bizi ziren eta erdaldunak ziren. Haien umeekin jolasean ibiltzen gi-

nen eta nik primeran ikasi nuen erderaz.

**Ezagutu al duzue beste eskolarik?**

M.: Bai, Ermutik Maltzagako eskolara joan nintzen, eta han beste disziplina bat zegoen, hango oroitzapen hobea daukat. 9 urterekin jaunartzea egin nuen eta Berrizko mojen eskolara bidali ninduten.

M.T.: Ni beti publikoetan, mojen eskolak garestiak ziren.

M.: Bai, halaxe zen, etxean idi parea zeukaten familietako alaba bat debalde hartzen zuten mojetan. Gure etxean bi idi pare zeudenez, ahizpa eta ni joan ginen.

**Eta, zer moduz mojekin?**

M.: Itxura danez, ni ume gaiztoa nintzen eta han ere beti zigortuta egoten nitzen. Lagun artean ni nintzen agintzen zuena. Behin, Madre Superioraren ilea ikustea nahi genuen, luzea ala motza ote zeukan, beti buruan toka beltza eramaten zuen eta hura kendu nahi genion. Inor ez zen ausartzen eta ni joan nintzen. Altxatu nion eta Garzon epailearen antzera moztuta zeukan ilea. Barre mordoa egin genuen, baina zigortu egin ninduten, noski!

> **«Lehenengo eskolako oroitzapen oso txarra daukat»**
>
> MIREN

**Nolako zigorrak izaten ziren orduan?**

M.: Mojek ortura bidaltzen niduten lanera. Madre Superioari egindakoagatik 3 egunez joan behar izan nuen. Beste baten gela ilun txiki batean sartu ninduten. Denetariko zigorrak jaso ditut. Nire ahizpa ere eskola berean zebilen eta hura ogi pusketa bat zen, on-ona; izugarri sofritzen zuen nirekin. Bera urte mordoa egon zen eskolan, baina ni gaiztoa nintzenez etxera bidali ninduten.



## [ PROTAGONISTA ]



### JoseLuis**Intxausti**

Jose Luis Intxausti C.D. Elgoibar Taldeko presidenteak adierazi duenez, aurtengo Futbol Liga txapelketa bukatutakoan bere kargua utzi egingo du. Hiru urtez izan da C.D. Elgoibarko presidentea eta aurrez, beste bi urte egin zituen Zuzendaritza Taldean. Iaz ere kargua lagatzekotan izan zen Intxausti, baina ordezkorik azaldu ez zenez, berak jarraitzea erabaki zuen. Aurtengoan, ordea, bere erabakiak ez omen dauka atzera bueltarik: "nekatuta nago eta jende berriari lekua uzteko momentua da. Aurtengoan banoa". Zuzendaritza Taldean sartzeko interesa dutenak berarekin jar daitezke harremanetan.

## [ NOTIZIA ]

# Kutxako 40 bezerori dirua lapurtu diete euren kreditu txartelak kopiatuta

Gipuzkoako Kutxako 40 bezero inguru lapurtu zituzten asteburuan, zorionez, banketxeko arduradunak segituan konturatu ziren, eta diru hori itzuli die kaltetuei. Kreditu txartelak kopiatu zituzten lapurrek eta honela, dirua inolako eragozpenik gabe atera ahal izan zuten. Lapurreta King-Kongeko kutxazain automatikoan izan zen igande gauean. Banketxeak egun horretan King-Kongeko kutxazain automatikoa erabili zuten 300 lagunen txartelak blokeatu zituen badaezpada.



**Beste zenbait lapurreta**

Ertzantzak Bizkaiko bi gazte atxilotu ditu, Aste Santuan gure herrian zenbait lapurreta egin zituztlako. Urasandi auzoan, Galiza Kultur Etxean sartu ziren eta kalean beste lau lokal lapurtzeko saiakera egin zuten: optika bat, okindegi bat, harategi bat eta jubilatuen egoitza. Pedro Muguruza kaleko taberna batean ere saiatu ziren lapurtzen.

## [ ZENBAKIA ] 400.000

Udalak 400.000 euro erabiliko ditu herriko lorategi eta berdeguneak zaintzeko. Proiektua lehiaketara atera du eta enpresa irabazleak urtebeterako konpromisoa hartuko du. Auzo, industrigune eta hilerriko berdeguneak ere zainduko dira.

## [ ARGAZKIA ]



Elgoibar da, bai! ziur jende askok ez duela ingurune hau gaur egun dagoen bezala ezagutzen. Apraizko depuradora da. Zeresan asko eman du depuradora honek, eta auzotarrak proiektu honen aurka azaldu ziren arren, azkenean, depuradora errealitate bihurtu da. Hala ere, obrak atzeratuta doaz. Hasiera batean iazko urte amaierarako bukatzeko asmoa zegoen, baina Foru Aldunditik esan digutenez uda ingururako amaituko dute. Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze eta Elgoibarko urak garbituko ditu Apraizko depuradorak.

# Udalak elgoibartarren arretarako bulegoa irekiko du



Elgoibarko Udalak herritarren arretarako bulegoa egiteko obrak kontratatzeko deialdi publikoa egin du. Bulego berri hau Santa Ana Kaleko Kutxa zaharraren lokalean kokatuko da. Udalak 2004. urtean erosi zuen lokal hau 473.596 eurotan.

Bezeroen arretarako lokalak 246m$^2$ ditu. Lokal hau elgoibartarren erreferentzi gunea izango da. Udalaren asmoa herritarrek dituzten eskari eta proposamen guztiak bulego honetan jasotzea da. Azken finean Udala herritarrengana gerturatzeko bidea izango da. Udaletik jakinarazi dutenez, herritarrek Udal Tramiteen %90a egin ahal izango dute bulego honetan. Herritarrei erraztasunak ematea da nahia.

### 223. 640 euroko aurrekontua

Udalak 223.640 euro inbertituko ditu elgoibartarren arretarako bulegoan. Obra hauek egiteko interesa duten enpresek hilabete amaierara arte daukate proiektuak aurkezteko epea. Proiektua gauzatzeko ardura hartzen duen enpresak lau hilabeteko epean bukatu beharko ditu lanak. Udalaren nahia urte amaierarako bulego hau martxan egotea da.



## 60 etxebizitza eraikiko dira Santa Klara auzoan

Astebeteko epean bota dute hainbat urtetan Geminis enpresa izan den eraikuntza etxebizitza berriak egiteko. Aizkorri promozioak 60 etxebizitza berri eraikiko ditu Santa Klara auzoan; horietatik 48 merkatu libreko etxebizitzak izango dira eta 12 Babes Ofizialekoak. Etxebizitzak bi eta hiru logelatakoak izango dira.

Honekin batera, bi solairuko lurrazpiko aparkalekua egingo dute etxebizitzen azpian. Kanpoaldean berdeguneak eta 25 autorentzako aparkaleku publikoa egitea aurreikusten da.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Euskal ikasleen eskubideen aldeko manifestazioa

Elgoibarko Ikasle Abertzaleak taldeak deituta, euskal ikasleen eskubideak defendatzeko manifestazioa egin zen joan zen apirilaren 6an. Ikastetxe desberdinetako ikasleek hartu zuten parte manifestazio honetan, euren ustez, euskal adarreko ikasleek zapalduak dituzten hainbat eskubide aldarrikatzeko helburuarekin. "Garena izateko bidean" lemapean, hizkuntza eskubidea, adierazpen askatasuna, biltzeko eta greba egiteko eskubidea eta euskal curriculum-a aldarrikatu zituzten, besteak beste.



### Osakidetzako txandak hartzeko oharra

Osakidetzatik jakinarazi dutenez, Elgoibarko Osasun Zentroko Medikuntza Orokorrerako, Pediatria edo Eritzaintzarako txandak aurrez hartu behar dira. Txandak hartzeko astelehenetik ostiralera bitartean deitu daiteke Osasun Zentrora (943 032610) goizeko 8:00etatik 20:00etara bitartean. Errezetak egiteko edo beste edozein motako informazioa eskatzeko ere, aurrez deitzea komeni da.

### Bideo forum-a

Haizea Emakume Taldeak antolatuta, bideo forum-a izango da gaur gauean Kultur Etxean. "Cleopatra" pelikula eskainiko dute. Ikuskizuna gaueko 22:00etan hasiko da.

108 lagun hil dira Aste Santuan Espainiako estatuko errepideetan.

# Zer egin daiteke errepideko istripuak gutxitzeko?

**MARTIN LOPEZ**
Jubilatua
62 urte



“Gidariak kontzientziatu behar dira. Jendea beti presaka dabil eta aurreratze arriskutsuak egiten dituzte. Isunak gogortzeak ez du ezer lortuko, ez naiz isunen lagun.”

**JOSE LUIS LEON**
Langilea
38 urte



“Polikiago gidatu behar da. Istripu gehienetako arrazoia abiadura izaten da, jendeak oso azkar gidatzen du. Oporrak lasai hartu behar dira, ez dago inora iristeko prisarik.”

**SERGIO SANCHEZ**
Teknikaria
25 urte



“Jendeak konfidantza handiegia dauka eta horren ondorioz, azkarregi gidatzen dute. Puntu bidezko karnetarekin istripuak gutxituko dira, baina gidarion esku dago.”

**Mª KARMEN JAUREGI**
Etxekoandrea
54 urte



“Garraio publikoa gehiago erabili behar da! Ni trenez joan naiz oporretara. Autobusa eta trena gehiago erabili beharko genituzke. Errepidean trafiko gehiegi dago.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Hartzen al duzu HIESaren kontrako neurririk sexu harremanetan?

**BAI %42**

“Bai, beti erabiltzen dut preserbatiboa. HIESa edozein lekutan egon daiteke eta gutxien espero duzun pertsonak trasmititu ahal dizu. Prebentzioa beharrezkoa da.”

**EZ %58**

“Ez, urte dexente daramatzat bikotekide berberarekin eta ez dugu HIESaren kontrako neurririk hartzen. Konfidantza daukagu, ondo ezaguntzen gara eta ez dugu arriskurik ikusten.”

Datorren asterako....

**Eutsiko al diote euskal futbol taldeek lehenengo mailari?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**.
Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

# BH Institutuko ikasleak Bartzelonako Enpresa Simulatuen azokan



Nazioarteko Enpresa Simulatuen VII. azoka ospatu zen Bartzelonan martxo bukaeran. Bertan, Euskadi, Espainia, Italia, Frantzia, Belgika, Alemania, Austria eta EEBBetatik etorritako 55 ikastetxek hartu zuten parte, horien artean, Elgoibar BH Institutua.

### Agroturist S.A.S

Aisialdia, heziketa eta turismoa uztartzen dituen nekazalturismo eskaintza batekin joan ziren Merkataritzako ikasleak Bartzelonako azokara. Agrotourist S.A.S izenpean, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kokaturiko hiru nekazalturismo etxe oso berezi aurkeztu zituzten. Merkatal gaitasunak praktikan jarri eta hobetzea zen helburua, eta bide batez, beste enpresa simulatuen esperientziak ezagutu eta beste herrietako ikasleekin harremanetan jartzea, trukaketa planak garatu ahal izateko. Ikastetxetik esan digutenez, azokaren balorazioa oso positiboa izan da: "ezarritako helburu guztiak bete ditugu eta ikasleek azoka bat zer den ezagutu dute. Marketing estrategiak garatu ahal izan dituzte eta negoziazio estrategiak praktikan jarri. Geletan jasotzen duten ikasketa teoriko-praktikoa negozioen munduan martxan jartzeko aukera izan dute".

## Gogo handiz hartu dute Kiribilen itzulera herriko haur eta gurasoek

Elgoibarko Izarrak antolatutako Kiribilka programa martxan da berriro. Bi saio egin dira momentuz Plaza Handian eta haur eta gurasoek ilusio handiz hartu dute Kiribil. Antolatzaileek esan digutenez, bi saio hauetan uste zutena baino jende gehiago hurbildu da ekitaldi hauetara, eta gainera, gurasoak ere umeekin batera parte hartzen hasi omen dira.

Kiribil barraskiloa lagun berriekin etorri da aurtengo egitasmoan. Euskal mitologiako adiskideak izango ditu bere ondoan saio bakoitzean. Besteak beste, lamiak, sorginak, Tartalo, eta basajaunak egingo dute Elgoibarko Plaza Handira bisita.

Hurrengo saioa Aste Santuko oporren ostean izango da, apirilaren 28an, Plaza Handian arratsaldeko 17:30ean.



## [ IRTEERAK ]



### Herri Eskolakoak Orixol mendian izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Araba aldera egin zuten irteera ikasle, irakasle eta gurasoek. Orixol mendian izan ziren. Aramaioko Etxaguen auzotik Leziagako lepora iritsi ziren eta pagadi bat zeharkatuz, Orixol mendiaren gailurrera. Aldapa gogorra egin zitzailea aitortu digute. Hurrengo irteera Ernio aldera egingo dute.



### Pilar Ikastetxekoak Alkizako aterpetxean

Pilar Ikastetxeko 3. eta 4. mailako ikasleak Alkizako aterpetxean izan dira. Esan digutenez, oso gustura ibili dira. Egun osoan euskaraz hitz egiteko aukera izan dute, eta ikastetxean ikasitakoa praktikan jarri dute. Irakasleek ere primeran pasatu dutela esan digute, ikasle guztiak oso ondo portatu baitira. Berriz joateko gogoz itxuli dira denak.



*26 urteko mendaroar gazte honek Euskal Herriko Botikarien elkarteak antolatzen duen FEUSE saria irabazi berri du. Farmazia ikasketak egin zituen Gasteizen eta orain Doktoretza egiten ari da Leioan. Depresioaren gaia izugarri interesatzen zaio eta hortan oinarrituko da bere tesi lana. Gai ezaguna, baina aldi berean ezezaguna den depresioari buruz luze jardun dugu berarekin.*

## IGOR HORRILLO

### FEUSE BOTIKA SARIAREN IRABAZLEA

# «Bizimodu lasaia izan daiteke depresioan ez jausteko bidea»

**Zer da Feuse saria?**
Botikari Euskaldunen Elkarteak 2 urtean behin antolatzen duen botikaren inguruko euskarazko testu idatzien lehiaketa da. "Depresio nagusia" izeneko lana aurkeztu nuen lehiaketara. Lan honetan depresioaren inguruko alor desberdinak lantzen dira: : oinarri neurobiologikoak, diagnostikoa, tratamendua, ikerkuntza...

**Nola animatu zinen parte hartzera?**
Nire doktoretza tesia depresioari buruzkoa izango da eta gaixotasun honen ikuspegi orokorra izateko ongi etorriko zitzaidala pentsatu nuen. Gainera, depresioaren gaia izugarri interesatzen zait. Irabazteko esperantza banuen; lehiaketa batean parte hartzean izaten den esperantza. Saria oso ondo etorriko zait!

**Azalduko al diguzu apur bat depresio nagusia?**
Gaur egun gero eta zabalduagoa dagoen gaixotasuna dugu, eta aspalditik ezaguna den arren, oraindik ez dakigu zein den gaitz psikiatriko honen jatorria. Erabiltzen diren tratamenduak eraginkorrak izaten diren arren, gaixoen %80ak ez du tratamendurik jasotzen. Izan ere gaixotasun honi aurre egiteko orduan aurkitzen dugun arazo nagusia infradiagnostikapena izaten da. Hau dela eta, ikerkuntza munduan lan asko egiten ari da, bai diagnostikapen on baten bila, baita tratamendu egokiaren bila ere.

**Zein dira depresioaren ezaugarriak?**
Egoera animikoaren eraldaketa sakonak, umorearen goibeltasunak, oinaze moralak eta geldotasun psikomotoreak bereizten duen gaitza da. Batzutan ezintasun orokorreko sentimen samingarria eta itxaropenik gabeko zorigaitza ezartzen ditu; erruduntasunez, automesprezuz, suizidatzeko gogoetetara eramanaz, eta noizean behin, ekintzerara ere bai.

**Nola ezberdindu daitezke goibel aldi bat eta depresioa?**
Zaila izaten da, izan ere tristura gizakiari lotuta dagoen egoera naturala da eta askotan ez da erraza egoera normala eta patologikoa ezberdintzea. Hala ere, depresioak eragindako tristura oso sakona izaten da eta sintoma somatikoei lotua agertzen da; moteltasuna, atsegina edo beste gustuko edozein sentsazio sentitzeko ezintasuna, mina gaizki jasatea, antsietatea, zorabioak...

**Batzuetan min fisikoen jatorria ere depresioan ei dago, ezta?**
Depresioaren sintoma bat da hau. Gaixoek buruko mina edo min muskularrak izaten dituzte baina gainera mina besteok baino gaizkiago jasaten dute.

**Inor ez dago depresioan jausteko arriskutik kanpo, ezta?**
Depresioaren jatorria zein den ez dakigunez, ez dakigu non aurki daitekeen arriskua, baina badirudi bizimodu lasai batek asko laguntzen duela gaixotasun hau saihesten. Gure senideetatik jasotako zama genetikoak ere zerikusi handia du depresioaren agerpenarekin

[ «Depresioak eragindako tristura oso sakona ]

**Ba al dauka sendatzerik?**
Honi buruzko azterketa asko egin dira eta denek diote egoera gero eta larriagoa dela. Gero eta zabalduagoa dagoen gaitza da eta ziurrenik eguneroko bizitzan daramagun erritmoari eta honek eragindako estresari loturik dago. Zorionez gaixotasun honek badu sendabiderik; farmakoterapia, psikoterapia, terapia elektrokonbultsiboa... Gehienetan farmakoak eta psikoterapia erabiltzen dira terapia konbinatu gisa. Hala ere gaixoen %20-30ak ez dio ondo erantzuten tratamenduari.





[ «Depresiodun emakumeen kopurua gizonezkoen bikoitza da» ]

**Emakumeei gehiago eragiten diela ondorioztatzen duzu zure lanean... Zergatik izan daiteke?**
Bai, gaur egun depresioak jotako emakumeen kopurua gizonezkoenaren bikoitza da. Ezberdintasun honen jatorria emakumeen berezko erikortasun espezifikoan (faktore neuroendokrinoei lotua) eta emakumeak duen paper soziokulturalean dagoela uste da

**Nola jokatu behar dugu depresioa daukaten pertsonekin?**
Beste edozein gaixotasunen aurrean jokatzen dugun moduan jokatu behar dugu depresioa duten pertsonekin. Sendagilearengana joan eta hark esango digu zein den eman beharreko hurrengo pausua. Ingurukoek, gaixoa ulertzen saiatu behar dute. Askotan zaila izaten da gaitz hau duten pertsonak ulertzea. Pazientziaz hartu behar da.

**Automedikazioari buruz, zer esango zenuke?**
Automedikazioa arriskutsua izatera hel daiteke. Gaixotasunaren diagnostiko egokia egin ondoren sendagaiaren aukeraketa sendagilearen lana da. Gure kabuz sendagaiak hartzeak gaixotasunaren konplikatzea dakar askotan. Jende askok abusatu egiten du. Sendagaiei izan behar zaien errespetua galdu egin dela iruditzen zait.

# txApela bUruAN...



ERROMA - ITALIA

# Begoña Merino

Begoña Merinok zazpi hilabete inguru daramatza Erroman. Erasmus programarekin Ikusentzunezko Komunikazioa Ikasketak bukatzera joan zen Italiako hiriburura, eta ikasturtea bukatu arte gutxienez, bertan geratuko da. Handik aurrera, auskalo! Berak ere ez daki seguru noiz bueltatuko den. Gustura dagoela kontatu digu, Erroma oso ederra omen da, handia eta zoroa, baina ba omen du alde txar bat ere, oso garestia dela. Erroma aldera joateko, beraz, poltsikoa ondo beteta eramatea ezinbestekoa da.

**Nolakoa da Erroma?**

Ederra, handia, garestia, zoroa... Guzti hau estremora eramanda: Ederra; edozein txokotara begiratzen duzula ere bistarako gozamena da, handia; nonbaitera iristeko presaka zabiltzanean batez ere, garestia; oso garestia benetan, eta zoroa; guztiz zoroa, egunero-egunero harritzen nau hiri honek.

**Zer da gehien gustatu zaizuna?**

Erroma bera osotasunean hartuta: monumetuak, foroak... eta jendea! Hiria ez zen gauza bera izango trafiko zororik gabe, kalean oihu egiten duen jenderik gabe. Zoramena nabari da bazter guztietan.

**Nolakoak dira Erromako bizilagunak?**

Erromatarrak baino, kanpoko jendea ezagutu dut gehiago. Italia bertakoak asko, atzerritarrak, baita euskeraz hitzegiten zidan amerikar bat ere! Erromatarrek barregura ematen didate, azentu arraro bat baitute.

**Zer egin zaizu zailena?**

Hasierak zailak izaten omen dira beti. Nirea ez zen guztiz txarra izan, jende ezaguna izan bainuen ondoan. Zailtasuna baino, handia egin zitzaidan hasieran, handiegia agian. Baina ohitze kontua da.

**Zuregana bisitan joanez gero, zer erakutsiko zeniguke?**

Orain arte etorri direnei behintzat Erroma osoa, goitik behera erakutsi diet. Derrigorrez ikusi baharreko monumentu, plaza eta mila elizez gain, nor etortzen den arabera, planing-a aldatzen joan ohi da. Niri koliseoa da gehien gustatzen zaidana, izugarria da, ederra benetan.




# jakiTekO...

## "Ipuina, balioetan hezteko tresna"

Azkoitiko Hezkide Eskolak antolatuta, "Ipuina, balioetan hezteko tresna" ikastaroa izango da apirilaren 29an eta maiatzaren 6an, goizeko 9:30etik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara. Azkoitiko Gazteentzako Informazio Bulegoan eskainiko da (Bizenta Mogel 6). Ikastaro hau haur eta gazteen hezitzaileentzat diseinatuta dago: astialdiko begirale eta zuzendariak, irakasleak, gurasoak, etab. Dena den, gai honetan interesa duen pertsona ororentzat irekita dago. Informazio gehiago 943 311474 edo 943 311475 telefonoetan. Prezioa, 60 euro.

## Udalekuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen 14–17 urte bitartekoei zuzendutako udalekuen kanpaina martxan dago. Zozketarako izen-ematea apirilaren 20tik 28ra izango da. Bi aukera dituzue izena emateko: Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoa edo internetez www.gipuzkoa.net/oporraldi web orrian edo. Banaka edo gehienez hiru lagun apunta daitezke. Zozketa maiatzaren 9an izango da eta emaitzak Gazte Informazio Bulegoan edo Interneten ikusteko aukera izango duzue.

Udalekuak uztailean eta abuztuan izango dira. Bestalde, euskara edo ingelesa ikasteko udalekuak ere izango dira. Informazio gehiago Gazte Informazio Gunean jaso daiteke: elg.gzerbitzua@terra.es helbide elektronikora idatziz edota 943 741461 telefonoan.



## Argazki rally-a



Legazpiko Ikatza Argazkilari Elkarteak argazki rally-a antolatu du. Sari bikainak izango dira irabazleentzat: Helduentzat: Bilduma onenari 200 euro eta garaikurra, 2. bilduma onenari 150 euro eta garaikurra eta 3. bilduma onenari 100 euro eta garaikurra. Haurrentzat: Bilduma onenari garaikurra eta oparia. Parte-hartzaileek maiatzaren 7an bertan eman behar dute izena, 9:00etatik 10:00etara, Ikatza elkartean, Kultura Etxearen atzeko aldean. Informazio gehiago 649 051936 edo 639 281714 telefonoetan. Helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte, haurrek 3 euro.



EUSKARAREN ERABILERAREN AZTERKETA

# Elgoibartarren %40k berba egiten du euskaraz herriko kaleetan

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak martxoaren azken astean egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren %39,7k hitz egiten du euskaraz herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko, 4.959 elgoibartarren hizkuntz jokaera neurtu da. Hauetako 1.973 aritu dira euskaraz.

Adinari kasu eginez gero, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%60,8), eta helduak gutxien darabiltenak, %27,7k bakarrik. Urtez urteko datuak konparatuz adinaren araberako emaitzak beti antzekoak izaten direla ondoriozta daiteke. Halere, azken urteetan gazteen artean euskararen erabilera jaitsi egin da, %44,3tik %36,9ra. Giroei dagokienez, jolaslekuan, ikastetxeen irteeran eta erosketa giroan erabiltzen da gehien (urtero bezala), ondoren, familia giroan eta gazte giroan, eta bukatzeko, txikiteoan. Txikiteoan emandako igoera, iazko %26,5etik aurtengo %34ra, azpimarratzekoa da, azken urteotan beherakada etengabea jasan duen giroa baita. Familia giroan ere igoera eman da (%31tik %39,1era). 1994. urtean ekin zion Udalak euskararen erabilera neurtzeari. 1995etik aurrera gorantz egin zuen pixkanaka eta 2002. urtean izan zuen igoerarik nabarmenena, baina azken urteotan erabilera orokorra jaitsiz joan da (%44,7, 2003an; %41,4, 2004an eta %40,9, 2005ean). Euskara Sailekoen arabera, "Aurtengoa 1998 urtekora hurbildu da. Eta adinka aztertuz gero, 1998 urteko datuak eta 2006koak oso antzerakoak direla ikus daiteke, hortaz, Elgoibarren ere, beste herri askotan gertatu den bezala, euskararen ezagutzak gora egin badu ere, erabileraren bilakaera bestelakoa izan da".

**EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA**

| | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| HAURRAK | %63 | %70,9 | %63,5 | %63,6 | %58,5 | %60,8 |
| GAZTEAK | %40 | %44,6 | %43 | %41 | %36,7 | %39,3 |
| HELDUAK | %25,7 | %32,9 | %35,1 | %30,6 | %31,5 | %27,7 |
| ADINEKOAK | %33,2 | %40,8 | %41,1 | %40,8 | %36,7 | %40,3 |
| **GUZTIRA** | **%37,4** | **%45,5** | **%44,7** | **%41,4** | **%40,9** | **%39,7** |

ARMERIA ESKOLA
Goi Mailako L.H.ko Berariazko Institutoa
Isasi kalea, 36 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 20 32 44
www.armeriaeskola.com / secretario@armeriaeskola.com
2006/2007 IKASTURTEA
HEZKUNTZA ESKAINTZA
"A" eta "D" EREDUAK (Gauez eta Egunez)
BATXILERGOA
ZIENTIFIKOA
ERDI MAILAKO ZIKLOAK
MEKANIZAZIOA
EKIPO ETA INSTALAZIO ELEKTROTEKNIKOAK
GOI MAILAKO ZIKLOAK
PRODUKTU ELEKTRONIKOEN GARAPENA
MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
INDUSTRI EKIPOEN MANTENIMENDUA
TELEKOMUNIKABIDE ETA INFORMATIKA SISTEMAK
ERREGULAZIO ETA KONTROL AUTOMATIKO SISTEMAK
MUGARIK GABEKO "TALDE EKINTZA" ZUREA ETA GUREA
IZENA EMATEKO:
Batxilergo eta Heziketa Zikloetarako sarrera frogak, apirilaren 24tik maiatzaren 5era (biak barne).
Sarrera zuzeneko Heziketa Zikloak, ekainaren 1etik 7ra (biak barne).
Zikloen eskaintza partziala/sarrera-frogaren prestakuntza.
Etengabeko eta langabetuentzako prestakuntza.

EUSKAL DANTZAK

# Herriko 9 dantzari Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketetako finaletan

Itziar Aldalurrek Lezoko Soinu Zahar Txapelketa irabazi zuen, 7 eta 11 urte bitartekoen mailan. Lezokoa Soinu Zahar Txapelketaren ligaxkako azken saioa izan zen eta elgoibartar dantzariak bikain aritu ziren, Itziarren garaipenaz gain, Arantxa Ferreirok 4. postua eta Nerea Badiolak 8. postua eskuratu baitzituzten. Nagusiagoen sailean (11-15 urte), 7. postuan sailkatu zen Amaia Astigarraga. Euskadiko XII. Neskatxena Dantza Txapelketako finala maiatzaren 14an jokatuko da Legazpin. Elgoibartarrek garaipena lortzeko aukera handiak dituzte, Itziar Aldalurrek eta Dorleta Fernandezek ligaxkako lehen postuan amaitu baitute, bakoitzak bere adin mailan. A sailean; Arantxa Ferreirok (3. postua), Nerea Badiolak (4. postua) eta B sailean Maria Ferreirok (4. postua) eskuratu dituzte. Finalerako sailkatu ez den bakarra Amaia Astigarraga izan da.



Mutilei dagokienez, Altsasun jokatu zen XX. Aurresku Txapelketako ligaxkako azken saioa. Postu aipagarrienen artean; Mikel Zuñigak gaztetxoen mailan lortu zuen 5. postua eta 11 eta 15 urte artekoetan Josu Espillak lortu zuen 7. postua ditugu. Mikelek postu bera eskuratu du ligaxkako sailkapen orokorrean eta Josu 9. postuan sailkatu da. Aurresku Txapelketako finala Errenterian izango da maiatzaren 13an. Bertan izango dira Mikel Zuñiga, Asier Garmendia, Asier Odriozola eta Itoitz Vitores. Hortaz, 9 izango dira guztira Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketetako finaletan arituko diren herritarrak.

## Oskorriren Elgoibarko kontzertua telebistarako grabatuko da

Urtero, maiatzean, Oskorri musika taldea Elgoibarko Herriko Antzokian egon izan da, The Pub Ibiltariaren kontzertuarekin. Aurten, maiatzaren 5ean, gaueko 22:00etan berriro ere izango dira gurean, Udaleko Euskara Batzordearen eskutik, ikuskizunaren X. urteurreneko ekitaldian. Urtebetetzea dela-eta, ekitaldi berezia izango da, telebistarako grabatuko baita kontzertua. TVE arduratuko da grabazioaz, eta maiatzaren 8tik aurrera, 17 egunetan zehar, kantu bana emitituko dute TeleNorten eta TeleNavarran, bai eguerdian, bai iluntzean. Kontzertua ahalik eta politena eta txukunena izan dadin, beharrezkoa da Elgoibarko herriaren laguntza. Antolatzaileek herritar guztiei dei egiten diete, kontzertu horretan; bai ikusle-kantari gisa, bai instrumenturen bat joz, zuzeneko partaide gisa, Herriko Antzokian izan daitezen. Parte hartu nahi dutenek, Elgoibarko Kultur Etxean eska ditzakete partiturak eta letrak dituzten liburuxkak, diskoak, eta hainbat instrumenturentzako (Sib, Mib eta Fa) partiturak. Informazio gehiagorako Euskara Sailarekin harremanetan jarri (943 74 43 66 edo euskara@elgoibar.org)..



**ESKERTZA**

2006ko apirilaren 16an hil zen

***Julio Arriaga Muguerza***ren sendiak,

bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**ESKERTZA**

2006ko apirilaren 5ean hil zen

***Maria Mendikute Ariznabarreta***ren sendiak,

bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKUBALOIA

# Lojantzi senior nesken taldea Euskal Ligako txapeldun



Etxetik kanpo jokatutako ligako azken partida Askartza taldearen aurka 25 eta 30 irabazi ostean, Euskal Ligako txapeldun izatea lortu du Lojantzik, senior nesken eskubaloi taldeak. Emozioz beteriko liga amaiera izan dute. Azken aurreko partidan Errenteriako Ereintza taldearen aurka jokatu zuten kiroldegian eta 24na berdindu ostean, Askartzaren aurkako azken partida nahitanahiez irabaztera behartuta zeuden elgoibartarrak, Ereintzakoei puntu bakarreko aldea ateratzen baitzieten sailkapenean. Garaipen honekin, animoz beteta ekingo dio igoera faseari. Denboraldi osoan partida bakarra galdu dute Igor Lizarraldek entrenatutako neskek, Ereintzaren aurka Errenterian jokatutakoa hain zuzen ere, eta bi partida berdindu dituzte; errenteriarren aurkakoa etxean eta ligako estraineko partida Galdakaon. Txapelketako talderik goleatzaileena izatea lortu dute, guztira 450 gol sartu baitituzte. Jasotako golak 377 izan dira. Igoera faseko lehen partida maiatzaren 6an jokatuko dute Iruñean La Jota (Aragoi) taldearen aurka. Bigarren partida, maiatzaren 7an Loiolako Itxakoren kontra.



## Bost elgoibartar Gipuzkoako Eskubaloi selekzioan

Argazkian ageri diren bost neska hauek: Aintzane Arizmendi, Ianire Rovira, Nagore Alvarez, Ane Urain eta Maite Bollar, Sanlo infantil nesken eskubaloi taldeko kideak dira. Bostak Gipuzkoako selekzioarekin jokatzeko hautatuak izan ziren eta Akitania, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako selekzioek parte hartu zuten torneoan jokatu zuten joan zen apirilaren 16an, Hondarribiko Hondartza kiroldegian. Gipuzkoako selekzioa 16 jokalariz osatua zegoen eta hauetatik 5 elgoibartarrak eta Sanlo EKTko kideak izatea ez da marka makala. Hau gutxi balitz, finalaurreko partidan Akitaniako selekzioa garaitu zuten gipuzkoarrek eta finalean 23 eta 20 irabazi zion Gipuzkoak Bizkaiari.

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

iz b.h.Institutua

Posta-Elektronikoa 012055aa@hezkuntza.net
Web orria ignaciozuloaga.net
Telefonoa 943 208349
Faxa 943 208048

Ignacio Zuloaga B.H.I
A eta D ereduetan

Batxilergoak
. Natur eta Osasun Zientziak + Teknologia
. Giza eta Gizarte Zientziak
. Arte

Kimika familiako Heziketa Zikloak
. Ingurumen Kimika (goi maila)

AURREMATRIKULA
APIRILAREN 24tik
MAIATZAREN 5era

KIROLA EUSKARAZ

# Eskola kirolean ari diren haurren gurasoak sentsibilizatzeko egitasmoa abian da

Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak eta Kirol Patronatuak, Debarroko Udalekin elkarlanean, Kirola Euskaraz egitasmoaren barruan hainbat ikastaro, sentsibilizazio egitasmo eta beka antolatzen ditu urtero. Oraingoan, eskola kirolean ari diren haurren gurasoei zuzenduriko sentsibilizazio egitasmoa jarri dute abian. Egitasmoaren helburua kirolaren bidez euskararen normalizazioan eragitea da eta haurrak euskaraz hitz egitera animatzea. Horretarako, eskuorri berezi batzuk banatu dizkiete eskola kirolean ari diren haurren gurasoei. Egitasmoaren lema "Eskola Kirolean denok euskaraz bideLagun" da, eta euskararekin eta kirolarekin bat egiten duten aholkuak zerrendatzen dira bertan, metafora gisa, errepideko seinaleak kontuan hartuta. Aholku hauek emanez, eskola kirolean euskaraz jarduteak duen garrantzia azpimarratu nahi da. "Kirolean erabiltzen den hizkuntzak, hizkuntza ohiturak sustraitzen laguntzen du. Azken batean, gurasoek euren seme-alabak euskaraz bizi daitezela lortu nahi badute, garbi izan behar dute kirola euskaraz egitea ezinbestekoa dela" esan digute.




## Udaberri Torneoko finala galdu egin zuten Ulaziak eta Iriondok



Udaberri Torneoko txapela Bergaran geratu zen. Lagunak Pilota Eskolako Eneko Ulaziak eta Haritz Iriondok 22 eta 15 galdu zuten Bergarako Udal Pilotalekuan jokatu zen Udaberri Torneoko finala. Estu hartu zituzten elgoibartarrek bergararrak, oreka izan baitzen nagusi partidaren lehen zatian. Muguruza eta Herran bergararrek pilota biziagoa atera zutenean, ordea, oreka puskatu eta bergararrak hobeto moldatu ziren pilotaren ezaugarrietara. Finala etxean, ezagutzen duten frontoian jokatu izana ere alde izan zuten mahoneroek.

## Gaztela-Leongo karting Txapelketan lehiatzen ari da Jon Gonzalez

Jon Gonzalez elgoibartarra Gaztela Leongo Karting Txapelketan parte hartzen ari da. Rallietan eta auto igoeretan aritutako elgoibartarra karting mundura pasa da oraingoan eta gauzak ez zaizkio guztiz oker atera; Castroponceko zirkuitoan jokatu zen proban 9. postuan sailkatzea lortu baitzuen. Lehen kanporaketa-seriea 3. postuan amaitu zuen, baina bigarrengoan tronpo bat egin eta podiumean sartzeko zituen aukerei agur esan zien. Birel markako karta gidatzen du Jon Gonzalezek, eta gezurra badirudi ere, 150 km./h.ko abiadura hartzeko gai dira ibilgailu txiki hauek.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 2 - Zamudio 0 (3. maila)

Pedrusko 3 - Elgoibar 0 (1. erreg.)

Elgoibar 1 - Zugatzarte 1 (Jub.)

Eibartarrak 0 - Elgoibar 1 (Kad.)

Antiguoko 8 - Elgoibar 3 (Inf. A)

Elgoibar 2 - Urola 1 (Inf. B.)

Ilintxa 4 - Elgoibar 2 (Neskak)

Urola 8 - Elgoibar 3 (Neskak F-8)

Elgoibar 3 - Billabona 1 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa

Eskoriatza 7 - Lagunak (Liz./Sal.) 22 (Kad.)

Bergara 9 - Lagunak (Portu/Arriz.) 22 (Jub.)

Bergara 6 - Lagunak (Ula./Loiola) 22 (Nag.)

## [ AGENDA ]

### FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 22

10:30 Elgoibar – Mutriku (Inf. A)

16:30 Haundi – Gernika (3. maila)

## Urnobitza Eskubaloi taldea Gipuzkoako txapeldun

Urnobitza, kadete mailako eskubaloi taldeak, Gipuzkoako Txapelketa irabazi du. Joseba Sagastak entrenatutako mutilek luxuzko denboraldia burutu dute, partida bakar bat ere galdu gabe. Halere, tituloa eskuratu nahi bazuten Eibarko Arrate taldeari irabazi beharra zeukaten Olaizaga kiroldegian jokatu zen ligako azken partidan. Zaletuen animoek ohiartzuna izan zuten jokalariengan eta 17 eta 26 irabazi zuten. Igoera fasea jokatzeko prestatzen ari dira orain Urnobitzako jokalariak.

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Pisua salgai Mendaron. 3 logela, egongela handia, sotoa, atikoa, bi komun. 217m². Guztiz berritua. 609 888 653
- Pisua salgai Mendaron. Eguzkitsua, dena kanpora. 3 logela, sukaldea, bi komun, bi garaje eta trastelekua. 635 20 79 01
- Pisua salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, garajea eta trasteroa. Berria. Prezio interesgarria. 606 71 56 77
- Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berritua. 168.200 euro (28 milioi pezeta). 943 748448/636571111

### ALOKAIRUA

- Etxea alokatzen da Pedro Muguruzan. 636 27 72 82 (18:00-21:00)
- Etxebizitza alokatzen dut Torreviejan. Hondartzatik 200 metrora. Aste Santu eta udarako. 615 70 71 38
- Pisu berria alokatzen da Santa Klaran, "Residencial Mirador". Sukaldea, egongela, bi komun, 3 logela, 40m²ko terraza. 655 72 3678
- Apartamentua alokatzen da Torreviejan. Igerilekuarekin eta hondartzatik 800 metrora. Hiri erdigunean. 628 58 45 35
- Logela bat alokatzen da. 635 20 64 36 (10:30-12:30 edo 19:00etatik aurrera)

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Garaje marraduna salgai Leku Ederren. 639 05 14 45
- Garaje marraduna alokatzen da Pedro Muguruza 11n. 943531648/669916148
- Garaje itxia salgai Leku Ederren. 24.000 euro. 678 80 35 35
- Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. 943 74 43 98/943 74 00 70
- Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean, 17-19 zenbakian. 943 74 24 50

## [ AUTOAK ]

- Ford Focus autoa salgai. TDCI, 115 zaldi, 2003koa. Xenon, TCS, Bristein suspentsioa, 76.000km. 630 946 241
- Motorra salgai. Piaggio x8 beltza. Extrak. 9.000km. Beti garajean. 678 80 35 35

## [ BESTELAKOAK ]

- Erabilitako furgoneta erosiko nuke. 676 929 453
- Gurpil-aulki elektrikoa salgai. Garant 40. 2002. Erabilterraza. 10km/orduko. Gurpil sendoak. Iraulgaitza. Prezioa adosteko. 635 73 58 15
- Sukaldea salgai: bitrozeramika, labea eta mepansa. Estrenatu gabe. Oso merke, 180 euro. 647 626 693
- Telebista handi bat salgai. 943 74 09 80
- Bizikletarako erruberak salgai. Mavik Cosmic Carbon. 2005. urtea. 850 euro. 943 03 37 24
- Lur saila erosiko nuke bide edo errepide batetik gertu. Hektarea bat inguru. 661 181 622

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.
Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Bi mutil lanerako prest: igeltsero, nagusiak zainduz, kamarero moduan, bserriko lanak... 615 00 83 46
- Neska lanerako prest. 666 814 916
- Neska nagusiak zaindu, garbiketa edo kamarero lanak egiteko prest. 667 709 439
- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako klase partikularrak ematen dira. 943 53 10 54
- Emakumea lanerako prest: umeak edo nagusiak zainduz, etxeko lanak eginez... 686 578 228
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan, igeltseritzan, lorezaintzan... 636 762 822/943 53 18 35
- Gizona lanerako prest. 678 89 84 29
- Kamarero moduan lan egiteko prest. Euskaraz dakit. 620 04 94 20
- Emakumea lanerako prest, egunez edo gauez. Esperientzia dut. 943 17 28 96
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan. Alikatatzen, tabikatzen eta makinaria erabiltzen dakit.. 645 70 28 31
- Gizonezkoa lanerako prest: eraikuntzan edo pintore moduan. 606 612 834
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. 676 623 843/943 53 08 03 (Romina)
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. 636362251/646235195
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. 943 53 12 70
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. 639 88 20 04
- Emakumea lanerako prest, interna edo externa moduan. 943 53 15 53
- Neska garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 680 327 674
- Mutila asteburuetan lan egiteko prest. 686 475 563

### ESKAINTZA

- Esperientziadun sukaldaria behar da asteburuetarako. 615 72 34 80
- Esperientziadun kamareroa behar da. 615 72 34 80
- Pertsona bat behar dut arratsaldez baserrian umeak zaintzeko. Autoa beharrezkoa. 943 74 28 51
- Kamarera eta sukalderako laguntzailea behar da. Asteburuetarako. 943 12 12 62
- Basko Rent enpresak kotxeak garbitzeko pertsona bat behar du. 902 10 32 87
- Egun erdiz lan egiteko kamareroa behar da. Utzi mezua ondorengo zenbakian: 695736799
- Eibarko enpresa baterako muntatzaile mekanikoa behar da. LH mekanika arloan eta ingelesa menperatzea eskatzen da. CV. Eibarko 263 postakutxatilara bidali.
- Tabernarako kamareroa behar da. 615 76 14 63
- Umea zaindu eta pisua osatzeko emakumea behar da. 666 03 27 15
- Mutil euskalduna behar da arotzegian lan egiteko. Gida baimena. Esperientziaduna. 943 03 35 66 (CV bidali faxez)
- Asteburuetan Txuri-Beltz tabernarako kamareroa behar da. 943 74 0228/943 7407 45
- Kamareroa, neska zein mutil, behar da tabernan lan egiteko. 943 74 16 00
- Asteburuetarako kamarera behar da. 695 72 37 36
- Sukaldari eta kamareroa behar da. Esperientzia. 943 74 12 30
- Kamareroa eta sukaldari laguntzailea behar dira asteburuetan lan egiteko. 943 03 01 50

## ABISUAK

- Txaleko bat aurkitu dut San Bartolome kalean. Jabeak deitu dezala. 943 74 29 38

# [ZORIONAK]



▸ Aupa **Ion** txapeldun! Hilaren 25ean 8 urte! Ondo pasa! etxekoen eta bereziki, Ianire eta Maitaneren partez.



▸ Zorionak **Eneko** hilaren 12an 8 urte egin zenituelako. Etxekoen partez.



▸ Zorionak **potxolo** bi urte egingo dituzulako. Aita eta amaren partez muxu handi bat.



▸ Kaixo printzesa **Aitana!** Zorionak zure 7. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Iriaren partez.



▸ Zorionak **Estitxu** apirilaren 2an 18 urte egin zenituelako. Segi horrelako guapa. Koadrilakoen partez.



▸ Zorionak **Elia!** Aitxitxa, amama eta amaren partez,



▸ Zorionak potxolo! **Unax,** muxu handi bat Ikastolako laguntxoen partez. Ondo pasa!



▸ Zorionak **Xabiertxo** zure 2. urtebetetzean. Ondo-ondo pasa! Muxu bat Ikastolako laguntxoen partez.



▸ Zorionak **Martin** apirilaren 19an 2 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Jabierren partez.



▸ Zorionak **Aitor!** Ion, Asier, Unai, Olatz eta amonaren partez.



▸ Zorionak **Elur,** familiako guztien partez.



▸ Zorionak **Eritz!** Muxu potolo bat Ikastolako laguntxoen partez.



▸ Aupa **bikote!** ondo pasa zuen ezkontza egunean! Familiakoen eta koadrilakoen partez



▸ Zorionak **bikote** hilaren 25ean 3 urte egingo dituzuelako. Etxeko guztien partez.



▸ Zorionak **Ane** zure 5. urtebetetzean. Ondo pasa! Familiakoen eta Loliren partez.



▸ Zorionak **Miren** hilaren 17an 11 urte egin zenituelako. Etxekoen, eta batez ere, Maiteren partez.



▸ Zorionak **Lucia eta Jon** gaur urtetxo bat egin duzuelako. Ondo pasa eta muxu handi bat familiako guztien partez.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3   943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



23 igandea BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 21 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 22 | Fernandez *(* Goizez Yudego)* |
| 23 | Fernandez |
| 24 | Yudego |
| 25 | Zabaleta |
| 26 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 27 | Ibañez |
| 28 | Bidasolo |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

| **UDALA** | |
|---|---|
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |

| **GARRAIOAK** | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| BARREN astekaria | 943 74 41 12 |
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |

| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

| **IKASTETXEAK** | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua • Arreiturre | 943 74 80 19 |
| •Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
*Pesa: 902 10 12 10*

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
*PESA: 902 10 12 10*

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
*EUSKOTREN: 943 74 04 42*

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## [ 21 BARIXAKUA ]

22:00 **BIDEO FORUM-A**
Filma: "Cleopatra"
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## [ 27 EGUENA ]

17:00 **UDAL LIBURUTEGIKO XII. IDAZLAN ETA MARRAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**
Udal Liburutegiaren atarian

## [ 28 BARIXAKUA ]

17:30 **KIRIBILKA PROGRAMA**
Plaza Handian
2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat (euria bada, hurrengo barixakura atzeratuko litzateke
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

21:00 **PILOTA JAIALDIA MENDARON**
Goñati Pilotalekuan
Partidak:
Portu - Larrarte
Ruiz - Atxotegi
Arrizabalago - Fernandez

## SINOPSIAK

**«Memorias de un**





# ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN

**«Memorias de una Geisha»**
21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 19:30-22:15
23, domekia: 19:30-22:15
24, astelehena: 21:30

**«La Pantera Rosa»**
23, domekia: 16:30

**«Cargo» (Zine Kluba)**
27, eguena: 21:30

**«Brokeback Mountain»**
28, barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA

**«V de Vendetta»**
21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:15
23, domekia: 17:00-19:30-22:15
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR,** RIALTO

**«Azuloscurocasinegro»**
21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:15
23, domekia: 17:00-19:30-22:15
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## ha»

uzendaria: Rob Marshall.
ntzezleak: Zhang Ziyi, Ken Watanabe.

Nisterioz eta exotismoz bustiriko munduan irotutako filma hau Bigarren Mundu Gerraren tariko urteetan lekutzen da. Neska japoniar bat ere familia txiroarengandik banandu eta geishen txean lan egitera behartuko dute. Etxean arerio naltzurrei aurre egin beharko dien arren, Sayuri eisha mitikoa izatera iritsiko da. Ezin ederragoa eta alentuz jantzia, Sayurik gizonik boteretsuenak uratzen ditu, baina berak sekretuan maite duen izona lortu ezina da beretzat.

## «Cargo» (Zine Kluba)



Zuzendaria: Clive Gordon.
Antzezleak: Peter Mullan, Daniel Brühl.

Afrikan zehar bidaiatzen ari den motxileroa da Chris. Azoka batean eskuturrekoa lapurtzen harrapatzen dutenean bat-batean etengo da bere abentura. Poliziarekin izandako arazoen ondorioz dirurik eta pasaporterik gabe geratuko da, eta beste erremediorik ezean, Marsellara dihoan Gull izeneko karga untzian polizoi gisa izkutatuko da, erabaki honek dakartzan arriskuen jakitun izan arren. Itsasuntzian zerbait arraroa gertatzen da, ordea.



**1932** urteko erretratu zahar hau **Bittor Arrietak** laga digu. Bere eskola garaiko argazkia da. Gaur egungo Banco Guipuzcoano eta BBV artean aterata dago erretratua, garai hartan Mujikaneko ortuak zeuden ingurune honetan. Eskola Publiketako ikasleak dira hauek. 7 eta 12 urtera arteko umeak batera ibiltzen ziren klasean. Don Felix Rozas zen irakaslea, irakasle gogorra zela esan digute.

Goian, ezkerretik eskumara: **Pedro Arosa, Jose Zuazubizkar, Migel Etxeberria ( ), Felix Iriondo ( ), Jose Agote, Fermin Ruiz de Gauna, Ramon Etxaniz, Enrike Gil, Leoncio Agirrebeña ( ), Sabin Osoro, Basilio Igartua ( ), Anjel Azkue ( ), Felix Ansola ( ), Sabin Astiazaran ( ).**

Bigarren ilaran: **Ramon Unzueta ( ), Ebaristo Iriondo ( ), Anakleto Salaberria, Joaquin Oria ( ), Jose Arrieta, Manolo Unzilla, Juan Arrese ( ), Karlos Unzilla ( ), Antonio Iriondo ( ), Julian Azkue ( ), Mikel Gorostiza, Nikolas Aizpitarte ( ), Ildefonso Ansola ( ), Ramon Garate.**

3. ilaran: **Jose Maria Gil ( ), Luis Mari Zubiaurre, Jabier Gurrutxaga, Jose Maria Lizundia, Luis Ostolaza, Pedro Ziaran ( ), Eduardo Arriola ( ), Julio Serrano ( ), Ramon Alberdi, Jose Mari Kortaberria ( ), Fernando Aiesta, Jesus Suarez, Karlos Arrese ( ), Bizente Etxabe ( ), Jose Zabala, Florencio Osoro.**

4. ilaran: **Jose Maria Mugerza ( ), Mateo Peñalba ( ), Antonio Regil, Jose Maria Gabilondo ( ), Jose Azpiazu ( ), Manolo Agerri ( ), Juanito Martinez ( ), Rufino San Martin, Tomas Gabilondo ( ), Bittor Arrieta eta Alberto Iriondo ( ).**



## ESKERTZA

2006ko apirilaren 17an hil zen
***Gregoria Irasuegi Azpitarte***ren sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Chevrolet Aveo berria, miretsi ezazu kanpotik eta goza ezazu barrutik
AVEO
Chevrolet Aveo berria
SARRERARIK GABE
60€ /hilabetean - LEHENENGO URTEAN
120€ /hilabetean - 100 KUOTETAN
PREVER PLANA GASOLINA BARNE 5,80% TAE
AVEO 1.4 LS 16V
Giauto 902 345 225
Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es
www.chevrolet.es
Chevrolet gehiago da.
CHEVROLET




HURRENGO SALMENTA
SALMENTA: INMOBILIARIA GABILONDO. PLANOAK: WWW.SUKIA.COM
16 ETXEBIZITZA LIBRE
TRASTEROAREKIN
Kalitatzeko etxebizitzak Elgoibar erdian.
Zure bizitza erosotasun guztiekin bizitzeko lekua.
Zeuk egindako etxea, zure nahi eta beharrei egokitua.
sukia
Zure etxean zaude.
SAN FRANCISCO
ELGOIBAR
www.sukia.com
943 74 44 67

# ELGOIBARKO BH INSTITUTUA
# 2006/07 IKASTURTEA

**Elgoibarko Institutua**
Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
**www.elgoibarbhi.net**

ISO 9001

Euskadi 2004





- ✓ Batxilerreko 5 ibilbideren artean norberaren interesen arabera aukeratzeko posibilitatea. **(Zientifiko-teknikoa, Osasuna, Teknologikoa, Humanitateak eta Gizarte Zientziak)**
- ✓ Azken 10 urteetan selektibitatea gure ikasleen %97k baino gehiagok gainditu du.
- ✓ Bailara guztiko 550 ikasle ditugu : aukera ederra  inguruko gazteak ezagutzeko eta harreman berriak egiteko.
- ✓ Unibertsitaterako zein goi mailako hezkuntz ziklo formatiboetarako prestakuntza.

## BATXILERREKO AURREMATRIKULA

Apirilaren 25etik maiatzaren 5era

**GURASOENTZAT BILERA IREKIA** apirilaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean.
**IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA** apirilaren 26an, arratsaldeko 16:30ean.